

**IDEIA:**

Gaur egun jende askok kanpoan bazkaltzen du, lanarengatik, egun pasak egitea gustoko dugulako, eskola gure etxetik urruti dagoelako... Askotan etxetik kanpo bazkaltzea egokitzen zaigu eta hasieran atsegina bada ere etxeko janari goxo eta beroa faltan botatzen hasten gara.

Betidanik tuper-ak edo termoak erabili izan ditugu janaria bero mantentzeko. Gure platerari esker, edozein lekuetan berotu dezakegu janaria eta hori gutxi balitz jaten dugun bitartean ere berotu ahal izango dugu.

Tamaina ezberdinekoak sortuko genituzke bakoitzaren beharretara egokitzeko eta edozein lekutan eraman ahal izateaz gain oso diskretuak eta diseinu eguneratukoak izango dira.

Gure ustez azken teknologia modernoa izango da eta elektrizitate gutxi kontsumitzera eramango gaitu. Bateria kargatzeko denbora gutxi beharko du eta gero denbora asko irauteko prestatua izango da. Bateria edozein etxeko entxufean kargatu ahalko dugu baina inoiz etxean kargatzeaz ahazten bagara zure mugikorraren bateria partekatu ahalko dugu edozein USBz baliatuz.

Abantaila guzti horietaz gain etxean egotearen sentrazioa izango dugu, taper batean jan ordez, plater batean jaten dugulako eta hau beroa mantentzen duelako.